Peñacerrada-Urizaharreko Udalak espedientea igorri du, akats materiala zuzentzeko indarreko planeamenduko arau subsidiarioen agiriko Payuetako 1 poligonoko 716 lurzatiaren kalifikazioan.

Bigarrena. Udalak dio goian aipatutako lurzatiaren kalifikazioa Bide Komunikazioen Toki Sistemara bildu dela, hutsegitez, izan ere, Komunitate Ekipamendurako Sistema Orokorreko (hilerria) hiri lurzorua da. Hutsegite hori egin da ez delako adierazi arauen agirian Administrazio Batzarrak hilerria handitu nahi duenik.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa. Herri Administrazioen Lege Araubidearen eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 105.2. artikuluak hauxe xedatzen du:

"Administrazio Publikoek edonoiz, ofizioz edo interesdunek eskatuta, bere egintzetan ageri diren akats materialak, egitatezkoak edo akats aritmetikoak zuzendu ahal izango dituzte".

Bigarrena. Kasu honetan, argi dago hutsegite materiala baino ez dela, hilerria handitu nahi izatea ez adierazteak eragin duen hutsegitea, ez baita arauen agirian zehaztu bide bezala kalifikatutako lurzorua lortzeko inolako modurik. Horiek horrela, argi dago komunitate ekipamendurako sistema orokorraren kalifikazioa izan behar duen lurzorua dela.

Horregatik, neure esku ditudan ahalmenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengoa. Hutsegite materiala zuzentzea, Urizaharreko planeamenduko arau subsidiarioen indarreko agiriko Payuetako 1 poligonoko 716 lurzatiaren kalifikazioan egindakoa, izan ere, Komunitate Ekipamenduko hiri lurzoru gisa kalifikatu zen, Bide Komunikazioen Toki Sistema kalifikatu ordez. Baita zuzendutako planoak izapidetzea ere.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, beren interesen alde abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke (administrazioen kasuan, errekerimendua), foru agindu hau eman duen organoari. Horretarako, berriz, hilabete izango da, honako hau argitaratu edo honen berri eman eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko maiatzaren 19a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

el Ayuntamiento de Peñacerrada remite expediente de rectificación del error material advertido en la calificación de la parcela número 716, polígono 1, de Payueta, en el vigente documento de Normas Subsidiarias de Planeamiento.

Segundo. Señala el Ayuntamiento que la calificación de la parcela arriba citada aparece incluida por error en el Sistema Local de Comunicaciones Viarias, cuando en realidad se trata de un suelo urbano perteneciente al Sistema General de Equipamiento Comunitario (cementerio). Se atribuye dicho error a una falta de plasmación en el documento de Normas de la voluntad de la Junta Administrativa de ampliar el cementerio.

II.- FUNDAMENTOS

Primero. Dispone el artículo 105.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, que:

"Las Administraciones Públicas podrán asimismo, rectificar en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho aritméticos existentes en sus actos".

Segundo. En el presente caso, resulta evidente que se trata de un simple error material derivado de una falta de plasmación de la voluntad de ampliar el cementerio, ya que no se ha concretado en el documento de Normas ningún mecanismo de obtención del suelo calificado como vial. No siendo esa la voluntad parece obvio que estamos ante un suelo que debe tener la calificación de sistema general de equipamiento comunitario.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero. Rectificar el error material advertido en la calificación de la parcela número 716, polígono 1, de Payueta, del vigente documento de Normas Subsidiarias de Peñacerrada, en el sentido de calificarla como suelo urbano de Equipamiento Comunitario, en vez de Sistema Local de Comunicaciones Viarias, y proceder a la diligenciación de los planos corregidos.

Segundo. Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Tercero. Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 19 de mayo de 2009.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**3856**

**279/2009 FORU AGINDUA, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuarena, maiatzaren 18koa. Honen bidez, onartu egiten da Ogasun zuzendariari eskuordetzea mugaeguna igarotako eta ordaindu gabeko zorrengatik premiamenduzko administrazio espedienteak izapidetzeko behar adina eragiketa eta jardun egiteko eskumena.**

Zerga zorrak kobratzera bideratutako administrazio funtzioak betetzean, hau da, dirubilketa egitean, premiamenduzko administrazio espedienteak izapidetzen dira, mugaeguna igarotako eta ordaindu gabeko zorrengatik.

Espediente horietan premiamenduzko probidentziak jakinarazten dira, eta horiek kontuan hartu ez, eta ez badira zorrak ordaintzen,

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**3856**

**ORDEN FORAL 279/2009, del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de 18 de mayo, que aprueba la delegación en el Director de Hacienda de la facultad de realizar cuantas operaciones y actuaciones sean necesarias en la tramitación de los expedientes administrativos de apremio por los débitos vencidos y no satisfechos.**

En el desarrollo de las funciones administrativas conducentes al cobro de las deudas tributarias, en las que consiste la recaudación tributaria en vía ejecutiva, se tramitan expedientes administrativos de apremio por los débitos vencidos y no satisfechos.

En los citados expedientes se notifican las providencias de apremio y, caso de no ser atendidas éstas, y de no ser satisfechas las

zordunek beren alde dituzten kredikuak bahitzeko eginbideak abiarazten dira. Adiministrazioak eraginkortasuna izan dezan, sinatu edo sustatu egin behar dituzte nahitaez jardun horiek horretarako baimena edo ordezkaritza duten Erakundeko pertsonek.

Arabako Foru Aldundiko Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 40.10 artikuluan foru diputatuei aitortzen die egintzak edo ebazpenak emateko eskumena beren sailetako gaietan, baldin eta eskumena ez badu aitortuta aldundiko beste organoren batek.

Bestalde, foru arau horren 91. artikuluak ezartzen duenaren arabera, Aldundiko beste organo batzuei eskuordetu dakizkieke administrazio eskumenak. Era berean, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 94. artikuluan ezartzen du diputatu nagusiaren eta foru diputatuen eskumenak zuzendariei eskuordetu dakizkiekeela, artikulu horretan bertan zehazten diren salbuespenak izan ezik, zeintzuek ez baitie eragiten aztergai dugun kontuari.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak egindako txostena aztertu da.

Horrenbestez, Administrazioak eraginkorrago eta azkarrako jardun dezan; Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak ezarritako eskuordetze aukerak kontuan izanda, eta dagozkidan ahalmenak baliatuta, hauxe

XEDATU DUT:

***Lehengoa.***

Ogasun zuzendariari eskuordetzea mugaeguna igarotako eta ordaindu gabeko zorrengatik premiamenduzko administrazio espedienteak izapidetzeko behar adina eragiketa eta jardun egiteko eskumena.

***Bigarrena.***

Eskuordetze honek ez du mugarik izango, harik eta indargabetu edo goragokoak eskumena bereganatu arte, esanbidezko ebazpen baten bidez.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko maiatzaren 18a.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun Zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

deudas, se formalizan diligencias de embargo de los créditos que ostentan a su favor los deudores. En pro de la eficacia administrativa es necesario que las actuaciones anteriores las firmen o promuevan las personas que, dentro de la Institución, tengan la representación o estén autorizadas para ello.

El número 10 del artículo 40 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, atribuye a los Diputados Forales la facultad de dictar los actos o resoluciones que procedan en materias de su Departamento cuando la competencia no esté atribuida a otros órganos de la Diputación.

Por otro lado, el artículo 91 de la citada Norma Foral establece que las facultades o atribuciones administrativas serán delegables en otros órganos de la Diputación. En el mismo sentido, el artículo 94 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, establece la posibilidad de delegar las atribuciones del Diputado General y de los Diputados Forales en los Directores, salvo las excepciones que se citan en el propio artículo, ninguna de las cuales afecta al asunto aquí tratado.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, y en aras de la eficacia y celeridad administrativas y en virtud de las posibilidades de delegación establecidas en la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO:

***Primero.***

Delegar en el Director de Hacienda la facultad de realizar cuantas operaciones y actuaciones sean necesarias en la tramitación de los expedientes administrativos de apremio por los débitos vencidos y no satisfechos.

***Segundo.***

Esta delegación tendrá carácter ilimitado mientras no se proceda a su revocación o avocación mediante resolución expresa.

Vitoria-Gasteiz, 18 de mayo de 2009.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

## HERRILAN ETA GARRAIO SAILA

**3805**

**526/2009 FORU AGINDUA, maiatzaren 15ekoa. Honen bidez, salgaiak edo bidaiariak errepide bidez garraiatzera zuzenduriko zenbait ibilgailuren gidarien hasierako prestakuntza egiaztatzen duen lanbide gaitasunaren ziurtagiria lortzeko proben deialdia egiten da.**

Errepideko garraiorako zenbait ibilgailuren gidarien hasierako prestakuntza eta etengabeko trebakuntza arautzen duen Europako Parlamentuaren eta 2003ko uztailaren 15eko Kontseiluaren 2003/59/CE Zuzentarauaren bidez, Kontseiluaren 3820/85/EEE Araudia eta Kontseiluaren 91/439/EEE Zuzentaraua aldatzen dira, eta zenbait gidari profesionalentzako prestakuntza berria ezartzen da.

Gidarien derrigorrezko prestakuntza aldatu egin da Gidabaimenari buruzko 1991ko uztailaren 29ko Kontseiluaren 91/439/EEE Zuzentarauan jasotakoarekin bat etorrita. Zuzentarau hori Gidarien Arautegi Orokorraren –maiatzaren 30eko 772/1997 Errege Dekretuaren bitartez onartua- bidez batu da barneko legeriara. Prestakuntza berriak egitura, eduki eta jasotzaile desberdinak ditu. Batetik, hasierako prestakuntza ezartzen da gidabaimenaz gain, eta bestetik, etengabeko prestakuntza, hasierako ezagutzei euste aldera. Ikasi

## DEPARTAMENTO DE OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

**3805**

**ORDEN FORAL 526/2009, de 15 de mayo, por la que se convocan las pruebas para la obtención del certificado de aptitud profesional acreditativo de la cualificación inicial de los conductores de determinados vehículos destinados al transporte de mercancías o de viajeros por carretera.**

La Directiva 2003/59/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 15 de julio de 2003, relativa a la cualificación inicial y a la formación continua de los conductores de determinados vehículos destinados al transporte de mercancías o de viajeros por carretera, por la que se modifica el Reglamento (CEE) nº 3820/85 del Consejo y la Directiva 91/439/CEE del Consejo, establece una nueva formación obligatoria para determinados conductores profesionales.

La formación obligatoria de los conductores se establece como algo diferente de la que actualmente existe para la obtención de los permisos de conducción a que se refiere la Directiva 91/439/CEE del Consejo, de 29 de julio de 1991, sobre el permiso de conducción, incorporada al ordenamiento interno por el Reglamento General de Conductores, aprobado por Real Decreto 772/1997, de 30 de mayo. La nueva formación difiere de esta última tanto en su estructura como en su contenido y destinatarios. Por una parte, se establece una cualificación